

Arkide

Okondoko
herriaren aldizkaria
#48
2023ko EKAINA / JUNIO

# Udako Jolas Txokoan izena emateko epea ekainak 9ra arte

2023ko Okondoko Udako Jolas Txokoa ekainaren 26tik uztailaren 28ra bitartean izango da. 2010-2020 urteen artean jaiotako umeei zuzendutako ekintzak egingo dira.

Ordutegia, goizeko 10:00etatik 13:30era izango da. Gainera, goizeko 09:00etatik 10:00etara bitartean arreta goiztiarra ere eskainiko da, gutxienez zortzi umek izena emanez gero. Ordu bat gehiago egoteko zerbitzua hautatuz gero, astean 10 euro gehiago ordaindu beharko dira.

Izena emateko Udaleko webgunean aurkituko duzun inskripzio orria bete eta liburutegian uzteko aukera dago. Bestalde, okondo.sac@ayto.araba.eus helbidera ere bidali daiteke izen emate orria.

Ekainaren 9a baino lehen eman beharko da izena. Asteka izena-emateko aukera ere badago, hau da, ez da derrigorrezkoa bost asteetan ematea izena. Plaza kopurua mugatua da eta herrian erroldatutakoek izango dute lehentasuna ume gehiegik izena ematen baldin badute. Izen-emateen ordena errespetatuko da aukeraketa egin behar baldin bada. Informazio gehiago Okondoko Udal webgunean dago eskuragarri.

| **TARIFAK** TARIFAS | **UME 1** 1 MENOR | **2 ANAI-ARREBA** 2 HERMANOS/AS | **FAMILIA UGARIKO KIDEA** MIEMBRO DE FAMILIA NUMEROSA |
|---|---|---|---|
| **ASTE 1** 1 SEMANA | 27 € | 49 € | 22 € |
| **2 ASTE** 2 SEMANAS | 51 € | 93 € | 42 € |
| **3 ASTE** 3 SEMANAS | 74 € | 132 € | 59 € |
| **4 ASTE** 4 SEMANAS | 93 € | 167 € | 74 € |
| **5 ASTE** 5 SEMANAS | 106 € | 188 € | 82 € |

*El plazo de inscripciones será del 23 de mayo al 9 de junio. Las plazas serán limitadas y las personas no empadronadas ocuparán las plazas que queden libres. También se ofertará servicio de madrugadores, entre las 09:00 y 10:00 de la mañana, si al menos 8 menores se inscriben en él.*

*En verano se realizarán 'Jolas Txokoak' para las y los nacidos entre el 2010 y el 2020. Las inscripciones se podrán realizar entregando la hoja de inscripción que encontrarás en la página del Ayuntamiento en la biblioteca o enviando la inscripción a okondo. sac@ayto.araba.eus.*

## Kortezarra Txiki film laburren jaialdia ekainaren 30ean




Ekainaren 30ean Kortezarra Txiki, Film laburren jaialdia egongo da Okondoko igerilekuetan. Aire zabaleko zinemaz gozatzeko aukera eskainiko dute.

Zinema Okondoko igerilekuetan izango da; baina, euria egiten badu, herriko pilotalekura aldatuko da ekintza. Etxeko txikienei zuzendutako jaialdia da Kortezarra Txiki, eta aire zabalean hainbat film labur ikusteko aukera izango dute hauek. Kortezarra jaialdiaren gaztetxoei zuzendutako saila da hori, film laburrak horiei egokituta baitaude.

Ekainaren 30ean, gaueko 22:00etan hasiko da emanaldia. Aurten ere, jaialdiak Arabako hainbat herritan zehar plazak zein herriko txokoak girotuko ditu udan zehar.

*Kortezarra Txiki tomará Okondo el día 30 de junio a las 22:00 de la noche. La emisión sera en las piscinas municipales.*

## 'Double Bill' de Too Much Circus llega a Okondo este junio




'Double Bill' de Too Much Circus estará en Okondo el día 16 de junio. El espectáculo tendrá lugar en las Piscinas Municipales a las 18:00 de la tarde. En caso de que llueva será en el frontón.

Too Much Circus es una compañía de circo, teatro y comedia fundada en Londres, que centra su trabajo en los malabares, la manipulación de objetos y el teatro físico, siempre con un punto cómico. 'Double Bill' es el espectáculo que ofrecerán este mes en Okondo. Es un revoltijo multidisciplinar donde circo, magia y demás artes escénicas confluyen hacia la comedia y el absurdo gracias a la ingeniosa idiotez de dos personajes que mezclan lo ridículo con lo refinado, creando un estilo con marca registrada.

*'Double Bill' ikuskizuna ekainaren 16an Okondoko Igerilekuetan izango da, arratsaldeko 18:00etan hasiko da.*

## Se ha creado una cuenta de WhatsApp de la biblioteca




Se ha creado una cuenta da WhatsApp con el número de la biblioteca para poder comunicarse con el servicio. El número es el siguiente: 945 898 339. Es imprescindible guardar el número de teléfono con el nombre de la Biblioteca en los contactos para así poder enviar mensajes mediante WhatsApp. A través de esta iniciativa, se quiere dar una vía más instantánea para poder realizar cualquier pedido en la biblioteca. Mediante dicho número se podrá apuntar a actividades o eventos, renovar libros... También se podrá consultar cualquier duda que se tenga sobre la Biblioteca y actividades concretas que se realizarán en el establecimiento o que han sido organizadas por ello. Guardate el número de teléfono para poder tener una comunicación más cercana.

*WhatsApp mezuak bidali ahalko dira liburutegiko zenbakira ekintzetan izena emateko: 945 898 339.*

**¿Tu negocio no aparece en la revista ARKIDE?**

Zure zerbitzu eta produktuak iragarri Okondoko etxe guztietan 20€tik aurrera




**Anuncia tus servicios y productos en todas las viviendas de Okondo desde 20€**

INFÓRMATE : **publizitatea@komunika.eus · 688 625 394**



## Berdintasun arloak aniztasunaren aldeko kanpaina antolatu du




Urtero bezala, Okondoko Udalaren Berdintasun Arloak aniztasunaren aldeko kanpaina prestatu du, herri anitza izateko helburuarekin.

Kanpainaren barruan, ekainaren 30ean Bingoz Bingo ikuskizun parte hartzailea izango da igerilekuetan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da Bingoa.

Yogurinha Borova eta Aureli Badiola artistek girotuko dute bingoa. Ondo pasatzeko aukera paregabea izango da, eta euskara eta aniztasuna ere landuko dira. Gainera, irabazleek opariak jasoko dituzte.

Beraz, aukera ederra da igerilekuetan ondo pasatzeko eta Okondo anitza lortzeko bidean jarraitzeko.

*El Área de Igualdad ha organizado el espectáculo 'Bingoz Bingo' el 30 de junio a las 19:00 de la tarde en las piscinas.*

## XXII Encuentro de Mayores de la Cuadrilla de Ayala



El 20 de junio se celebrará el XXII encuentro de mayores de la cuadrilla de Ayala. Será una jornada llena de entretenimiento, humor, bailer, comida y encuentros.

El plazo para apuntarse en dicha reunión estará abierto hasta el 14 de junio por el precio de 25 euros. Las plazas para la reunión son limitadas. Para participar hay que inscribirse en la asociación del municipio o en Cuadrilla de Ayala. Se podrá llamar a los siguientes números: Asociación Nuestra Señora de Untza (633 933 006) y a la Cuadrilla de Ayala (945 39 91 22 o 677 566 289).

Se informará de los horarios de recogida de autobuses en las asociaciones

*Ekainaren 20an XXII. Aiarako Kuadrillaren Adinekoen Topaketa ospatuko da. Ekainaren 14a baino lehen eman beharko da izena.*

## Aquagym en las Piscinas de Okondo en verano



En verano se podrá disfrutar de clases de Aquagym en la piscinas municipales de Okondo. Las sesioes tendrán lugar los meses de julio y agosto.

En julio se impartirá los días 7,14,21 y 28. En agosto, en cambio, sólo habrá dos días de clase de aquagym, el día 4 y el día 11.

Las clases siempre serán por la mañana, comenzarán a las 11:30. Cabe destacar, que aunque sea necesaria la inscripción en dichas clases, será gratis.

Las plazas son limitadas. Por lo tanto, hay que apuntarse en la Biblioteca de Okondo para poder reservar plaza en las clases de aquagym que se impartirán este verano.

*Aquagym saioak egongo dira uda honetan Okondoko igerilekuetan. Izena Okondoko liburutegian eman behar da.*






# Okondoko gazteei zuzendutako 'Konkis Astea', uztailaren 3tik 7ra

Aurtengo uztailean Okondoko gazteei zuzendutako Konkis Astea antolatuko da. Hilaren 3tik 7ra bitarteko goizetan, 09:00etatik 13:00etara hainbat ekintza eta jolas egiteko aukera izango dute gazteek: abentura jolasak, *slackline*-a, altxor bilaketa, jolas matematikoak, ur-paintball-a, eskalada, dastaketa probak...

2023an 12 urte beteko dituzten edo 12 urtetik gorako gazteei zuzendutako ekintza da. Izena emateko epea ekainaren 26ra arte egongo da zabalik eta Okondoko Liburutegian egin beharko da. 30 euro balioko ditu aste beteko ekintzak.

Plazak mugatuak dira eta herrian erroldatu gabekoek erroaldatutakoek bete gabe uzten dituzten plazak eskuratzeko aukera izango dute.

*'Konkis astea' del 3 al 7 de julio para las y los jóvenes de Okondo. Las inscripciones se podrán realizar hasta el 26 de junio en la Biblioteca de Okondo. El precio de la actividad es de 30 euros y está dirigido a jóvenes que cumplan 12 años en 2023 o mayores.*




***WhatsApp municipal***
***Si quieres informarte de la actualidad de Okondo, escribe un mensaje de WhatsApp al 678 17 66 82.***

# AGENDA
## EKAINA

### 16
**DOUBLE BILL**
'Double Bill' ikuskizuna
*Igerilekuak, 18:00*

### 20
**ENCUENTRO DE MAYORES**
XXII encuentro de mayores de la cuadrilla de Ayala




### 30
**BINGOZ BINGO**
Espectáculo 'Bingoz Bingo'
*Igerilekuak, 19:00*

**KORTEZARRA TXIKI**
Film laburren jaialdia
*Igerilekuak, 22:00*

